

Euskal presoak Greba eta mobilizazio astea

«Inplikazio adierazpenak» eskatu dizkie LABek beste sindikatuei

LABeko batzorde eragileak osteguna arteko baraua hasi du

Eider Goenaga / Donostia

LABeko idazkari nagusi Rafa Diezek euskal presoek aldeko «inplikazioa eta konpromisoa» adierazteko deia egin zuten gai-

nontzeko sindikatuei. LABeko batzorde eragileak osteguna bitarteko baraualdia hasi zuen atzo, Donostiako Ibaetako campusean, eta «ekimen xume eta sinbolikotzat» jo zuen Diezek.



EDURNE KOCH

Txutxi Ariznabarreta, Rafa Diez eta Jesus Mari Gete, LABeko kideak, atzo Ibaetan hasitako baraualdian.

OSTEGUNERAKO deitu duten bi orduko lanuztea bitarteko baraualdia hasi zuten atzo, Donostian, LABeko batzorde eragileko kideek. Sindikatuko idazkari nagusi Rafa Diezek presoek eskubideen eta prozesuaren aldeko «ekimen xume eta sinbolikotzat» definitu zuen baraualdia. «Greba eta mobilizazio aste honetarako aportazio bat izan nahi du ekimen honek, gure konpromisoa adierazteko eta gizarte sektore guztiei animatzeko, bakoitzak bere neurrian, aste

honetan presoek eskubideen alde ekimenak burutu eta urratsak egin ditzaten», azaldu zuen.

Ildo horretan zuzendu zitzaizen orain arte presoek eskubideen aldeko jarrera izan duten gainontzeko sindikatuei ere. Rafa Diezek «inplikazio eta konpromiso adierazpenak» egiteko eskatu zuten: «Ez da posible izan sindikatuen arteko ekimen bateratu bat bultzatzea, baina hala ere, beste sindikatuek animatu nahi ditugu inplikazio adierazpenak egitera,

urratsak egitera, bigarren edo hirugarren mailako argudioen gaineratik».

Amaitzeko, Diezek nabarmendu nahi izan zuen euskal presoek alde egitea Euskal Herriaren hitza errespetatua izatearen bidean lan egitea dela. «Guk garbi ikusten dugu Espainia eta Frantziako gobernuek gaitu gisa erabiltzen dituztela presoak, prozesua baldintzatzeko, eta guk tresna hori kendu behar diegu; horregatik esaten dugu presoek alde egitea prozesuaren alde egitea dela».

Euskal presoek eskubideen aldeko hainbat ekimen antolatu dituzte herrietan ere

Hainbat herri aste osorako ekimenak antolatu dituzte, *Euskal Herria kalera* astearekin bat egiteko, presoek eskubideen alde eta Euskal Herriaren hitzaren defentsan. Hala, Azkoitiko Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak, tabernariak, dantza taldeak, jubilatuen elkarteak, EHk, Haikak, Zutik-ek, LABek eta beste hainbat taldek mobilizazioak antolatu dituzte, eta nazio zein probintzia mailako ekimenean parte hartzea deitu dute. Tolosan ere, aurretik deitutako mobilizazioetarako deia egiteaz gain, herriko hainbat taldek ekimenak prestatu dituzte aste honetarako; hala nola, gaur arratsaldean egingo den kotxe-karabana, bihar udalarekin aurrean egingo den kontzentrazioa eta ostiralerako deitu duten enkartelada. Ordizian ere hainbat ekimen burutuko dituzte aste honetan. Atzo, adibidez, arratsaldeko 18:30ean herriko plazan elkartu eta han bildutako ordiziarrek elkarrekin joan ziren Donostian egindako manifestaziora.

IEHIEk presoek alde ostiralean Iparraldean egingen den mobilizazio egunean parte hartzea deitu du

IEHIE ikasle elkarteak giza eskubideen errespetuaren alde diren Ipar Euskal Herriko ikasleak deitu ditu ostiralean euskal presoek eskubideen alde egingen den Mobilizazio Egunean parte har dezaten. Hain zuzen, presoek egoerari buruzko informazioa ikastetxeetan zabaldu eta ostiral eguerdian, «ikastetxeetan ez jateko» deia egin du. «Euskal gizarteak aspaldi honetan salatzen du presoek egoera zuzengabea, baina Jospin zein Aznarrek ez diote ihardespenerik ematen gehiengoaren iritzia» azpimarratu du. Bestalde, asteburuan 30 pertsonen parte hartu zuten Hazparneko baraualdian. Maiatzaren 3tik gose greban dauden lau kideek 19. gose greba eguna dute gaur eta Sergio Yegorovek 13 kilo galdu ditu, Mikel Zabaletak 11 kilo, Nikolas Padronesek 10 kilo eta Juan Valle 9 kilo. Gose grebalari hauei Xarlo Etxezaharreta Hazparneko udal kontseilari abertzalea gehitu zaie.



JOXE LACALLE

Manifestazioa UPNren egoitzaraino. Ehunen bat pertsonak parte hartu zuten atzo presoek eskubideak aldarrikatzeko LABek antolatu zuen manifestazioan. Martxa UPNren egoitzaren aurrean bukatu zen, agiri bat irakurrita.

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO 1999ko ZERGA

Arabarentzat
ERRENTA garritasun

berri@

Arabako
Foru Aldundia
Ogasun, Finantza eta
Aurrekontu Saila



Diputación
Foral de Alava
Departamento de Hacienda,
Finanzas y Presupuestos

autorenta
PROGRAMAZ EGINDAKO AITORPENAK

I N T E R N E T & C D

Ordenagailurik badaukazu, zure AITORPEN PROGRAMA egin dezakezu laguntza programa informatikoaren bitartez. Programa hau Interneten eskura daiteke (www.alava.net) edo CDn erosi daiteke (200 pezeta).

Aitorpena egin eta gero, nahikoa izango da hura inprimatzea eta inprimaki ofiziala bezalaxe aurkeztea.

• **Errenta positiboak:** entitate laguntzaileetan edo posta bidez bakarrik.

• **Errenta negatiboak:** entitate laguntzaileetan nahiz Ogasuneko bulegoetan edo posta bidez.

► Gogora ezazu PFEZko aitorpena aurkezteko epea ekainaren 26an amaitzen dela, eta ezinbestekoa dela identifikazio etiketa eranstea.

Argibide orokorrak: Tel. 945 18 15 55